

BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, abenduak 12



Trena berriro Bergaran Abiadura Haundiko Trena

Mecak gabon zorientsuak opa dizkizue.

MECA TAILERRA
Amillaga 5 BERGARA
Tf. 76 40 68



RENAULT



VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai, 4 TI. 76 12 21 Bergara
Iturrioz, 24 TI. 79 78 10 Arrasate

*Zure ongizatea
babersteke gande*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAL

BEDELKAR_{rek}

Opel Corsa bat zozketatzen du

bezeroen artean



1998ko urtarrilaren 5ean
zozketatuko den "El Niño" loteriaren lehen sariaren
bost zenbakiekin bat datorren
txartela izango da
sariduna.



BERRIGARA

BERROKALDE JAUREGIA
 48017 Bergara
 Tfno: 76 03 97
 Fax: 76 29 77

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarte
 Zuzendaria:
 Angel Azkarate
 Erredakzioa:
 Eduardo Mendibil
 Angel Elkoroberezibar

Maketazioa:

Enkelturbe

Publizitatea:

Estina Romero

Argipidetzak:

Enkelturbe

Besten zuzenketak:

Eduardo Plazaola

Enkelturbe

Erredakzio kontseilua:

Enkelturbe

Angel Elkoroberezibar

Enkelturbe

Komikiak:

Rodríguez

Enkelturbe & Jon Alvarez

Enkelturbe

Enkelturbe

Zaleko argazkia:

Guinea (Gasteizko Udal Artxiboa)

Zanaka:

Enkelturbe

Zanaka:

Enkelturbe

Zanaka:

Enkelturbe

Zanaka:

Enkelturbe

Zanaka:

Enkelturbe

Zanaka:

Enkelturbe

Zanaka:

Enkelturbe

BERRIGARA ez du bere gain

erosten aldizkarian adierazitako

erosten eta iritzien erantzunik.



Aldizkari honek Bergarako
 Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
 Gipuzkoako Foru Aldundiaren
 laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
 Jaurlaritzaren Kultura
 Sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

JAVIER LIZARRAGA

MAYC-eko Zuzendari komertziala

- Zela izan da Orioko traineruarekin lortutako sponsorizazio akordioa?

- Alde batetik Oriok ez zuen iaz sponsorrik izan eta bestetik norbera bere herrian profeta ez dela adibide garbia da Otsein. Estatuko hainbat tokitan liderrak gara garbigailuei dagokienez, baina, kurioa bada ere, ez dugu horrenbesteko presentzia lortu Gipuzkoan, Bizkaian edo Kantabriari. Arraun munduari lotutako herriak direnez, kirol honetan liderra den talde bati gure izena lortzea nahi izan dugu. Diputazioak kirol amateurra babesteagatik ematen dituen laguntzak aprobetxatuz hor sartu ginen. Kirol profesionalak ez gintuen erakartzen.



- Zelako akordioa da?

- Oriok zifra fijo bat jasoko du eta beste kopuru bat emango zaio lortzen dituen emaitzen arabera. Orio taldeko traineru guztietan eta kirol jantzietan Otsein izena agertuko da eta taldeak Otsein-Orio izena izango du. Ez dugu zifrarik aipatu nahi baina biontzat akordio interesgarria da.

**"Orioko trainerua patrozinatuko dugu
 Kantauri aldean gure presentzia indartzeko"**

I T U R R I O N E T I K

**Datorren astebukaeran euskal liburu
 eta diskoaren azoka Bergaran**

AEK euskaltegiak eta Jardun elkarteak antolatuta, datorren astebukaeran euskal liburu eta diskoaren azoka izango da Bergaran. Zapatu eta domekan, abenduak 20 eta 21, *stand* batzuk jarriko dira

Seminarioko arkupepetan eta bertara hurbiltzen direnek diskoak eta liburuak erosteko aukera izango dute. Liburu eta diskoen azoka goiz eta arratsaldean izango da zabalik, 10:00etatik 14:00etara eta 17:30etatik 21:00etara. Beraz, abenduko lehendabiziko astebukaeran Durangoko azokara joaterik izan ez zutenek azken euskal liburu eta diskoen berri jaso ahal izango dute Bergaran.

E S A N
D U T E

"Datorren urtea ez da erreza izango ez guretzat ezta gainontzeko entitateentzat ere interesen jeitsiera dela eta. Dena den, Euskadiko Kutzak ratio edo indize nahiko onak ditu eta horiek defendatzea da datorren urterako daukagun erronka.

Horretaz gain, inguruko lurraldeetan bulego berriak irekitzeko asmotan ere bagabiltza"

J.M. OTEGI
 Euskadiko Kutzako presidentea
 EXTRA

"Fraixko eta Galtzagorriak haurrentzako nire azken lana neurri baten euskal mitologiaren erreibindikazioa da. Gaurko umek Batman, Superman, Pottokiak... ezagutzen dituzte baina euskal mitologiako komiki, liburu eta marrazki bizidun gutxi egiten da. Hori salatzen da. Eta bestalde, badago horrelako mezu ekologiko bat Urbiako bidearen inguruan"

J.M. ELEXPURU
 Idazlea
 EXTRA

**CONTACT**

Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

**AIR FORCE ONE**

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

**THE BLACKOUT**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ **Robert Zemeckis** zuzendariaren filme honetan **Jodie Foster** eta **Matthew McConaughey** aktoreak ditugu protagonista nagusiak. Bere aitaren heriotzaren ondoren *Ellie Arway* gaztea (**Jodie Foster**) zientzian murgildu da buru belarri. *Ellie* guttiz konbentzituta dago unibertsoan izaki extralurtarrak daudela eta eurekin kontaktuan jartzeko ahaleginduko da...

▼▼ **Harrison Ford** aktore ezaguna Estatu Batuetako presidentea dugu **Wolfgang Petersen**-ek zuzendutako filme honetan. Terrorista talde batek bahitutako abioian presidentearen familia doa. Presidenteak bere familiaren babesaren eta mundu osoaren segurtasunaren artean aukeratu beharko du... **Glenn Close**, **Gary Oldman** eta **William H. Macy** aktoreekin.

▼▼ **Abel Ferrara** zuzendariaren (*El funeral*) azken filmea aurtan Cannes-eko Jaialdian aurkeztu zen. *Matty* (**Matthew Modine**) arrakasta handiko aktore batek *Annie* (**Beatrice Dalle**) bere emaztegaiarekin eten ondoren, *Susan* (**Claudia Schiffer**) ezagutuko du baina amets arraro batzuekin obsesionatzen hasiko da...

Deiak

▼ **Eusko Alkartasunak** bere afiliatu eta jarraitzaileentzat babajana antolatu du hilaren 20rako. Izen-ematea Alkartetxean.

▼ **1975**ean jaiotako bazkaria hilaren 27an Zabala jatetxean. Izen-ematea (2.500 pezeta) Kutxako 0122161672 kontu korronte zenbakian hilaren 22a baino lehen.

▼ **1976**an jaiotako bazkaria hilaren 27an Antxonin. Izen-ematea (1.000 pezetako depositoa) Antxonin hilaren 25a baino lehen.

▼ **Matinala.** "El jorobado de Notre Dame" domekan 11:30etan.

▼ **Odol ateraldia** eguastenean 18:30etan Seminarioan.

▼ **Rakel Arenazaren** margoak Nahikari tabernan.

Ogia

▼ **Domeka 14:** Ogizun.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 12:** Mozos.
- ▼ **Zapatua 13:** Camacho.
- ▼ **Domeka 14:** Camacho.
- ▼ **Astelehena 15:** Puy.
- ▼ **Martitzena 16:** Guallar.
- ▼ **Eguaztena 17:** Estella.
- ▼ **Eguena 18:** Mozos.



MUJIKA GOZOTEGIA

BEREZITASUNAK:
BIZKOTXOAK
ERRELENOAK
TOSTOIAK

Artekale, 3 BERGARA
☎ 76 10 34

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi ☎ 76 15 09

Deco-Textil

ZANGITU

Etterako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

Esteban Landart

Organujole irundarraren kontzertua zapatuan San Pedron

Esteban Landart organujolearen kontzertua izango da bihar arratsaldeko 8etan San Pedro parrokian. Udazken Kulturaleko bigarren organo emanaldia izango den honetan Landartek honako egitaraua eskeinitu du: *Preludio eta fuga, Sim BWV 544* (J.S. Bach), *Hirugarren korala, Lam* (C. Franck), *Sixtina kaperaren oroitzapenak* (F. Liszt), *Preludioa, L. Vierne*ren transkripzioa (S. Rachmaninoff) eta "*Victimae Paschali*" gaiaz inprobisatutako korala (Ch. Tournemire).

Landart 1965. urtean jaio zen Irunen eta piano eta organo ikasketak egin zituen Donostian eta Baionan. Baionako Musika Eskola Nazionalen Urrezko Domina jaso zuen organoan. 1991n Lyoneko Goi Mailako Kontserbatorio Nazionalen sartzeko onartu zuten eta hiru urtez goi mailako prestakuntza jaso zuen bertan, gaur egungo pedagogoa onenatarikoekin lan egiteko aukera izan zuelarik.

Lyongo Jean Boyer irakaslearekin bukatu zituen bere ikasketak eta organo espezialitateko goi mailako musika ikasketetako



San Pedroko organoan joko du bihar Esteban Landartek. JUAN IDIGORAS

diploma nazionala eskuratu zuen organojole irundarrak. Orain dela gutxi hitzaldiak eta kontzertuak eman ditu Epernay-n (Frantzia) egindako Cavaille-Coll Nazioarteko Biltzarrean. Era berean, organuari buruzko la-

nak argitaratu ditu Esteban Landart-ek nazioarteko hainbat aldizkaritan. Gaur egun organo irakaslea da Tulle-ko (Frantzia) Musika Eskola Nazionalen eta kontzertuak ematen dihardu Alemanian, Frantzia edota Espainia-

ko Estatuan zehar. Biharko San Pedroko emanaldirako sarrera debaldekoa izango da.

Komiteen elkartasun hamabostaldia

Bestalde, Komite Internazionalistak taldeak antolatutako Internazionalismo eta Elkartasunaren hamabostaldiaren barruan, datorren egunean, hilak 18, Jon Arregi eibartarrak Kolonbiako egoerari buruzko hitzaldia emango du arratsaldeko zazpi terdian Kultur Etxean. Arregik "Voces de Colombia" izenburuko liburua idatzi du eta berarekin batera aurtengo udan Kolonbian izan den brigadista bat izango da Kultur Etxean.

Kreator Jam aretoan

Jam aretoan Kreator heavy talde iparamerikarrak joko du bihar zapatua, gaueko 9etatik aurrera. Sarrerak 2.000 (aurrez erosiz gero) eta 2.300 pezeta (takillan) jarriko dira salgai. Kreator taldearen aurretik Krisium eta Dimmu Borgier taldeek joko dute Amillagako aretoan.

ARRANO

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

Euskaldunok hizkuntz eskubiderik gabe

Gaur egun, euskaldunok ezin dugu geure burua euskaraz defenditu, justizia administrazioak erdaraz eta erdaldunentzako eraikiak daudelako eta epaile zein justizia arduradunak euskaldunak ez direlako.

Honen adibide garbia dugu azken egun hauetan gertatutakoa, Iñigo Elkoro abokatuari ezarritako isuna (milioi bat pezeta) alegia.

Iñigo Elkoro abokatuak, epaiketa aurrera zeraman epaileari, epaiketa euskara hutsean burutu zedin eskatu zion, honek ezezkoa eman zion, berak (epileak) eta fiskalak ez baitzuten euskara ezagutzen; ondorioz, Iñigo Elkoro epaiketa gela utzi egin zuen.

Gauzak horrela baldin badaude eta euskaldun izaten jarraitu nahi badugu, espainiar eta frantziar legedien aurrean jarrera desobediente eta tinkoa agertu behar dugu, bi estatu hauek "demokrazia", "lege" eta "justizia"ren izenean Euskal Herria zanpatzen ari baitira, euskal nortasun seinuak desagertaraziz, euskaldun orok dugun hizkuntz eskubidea ukatuz eta beraien hizkuntza inposatuz.

Ondorioz, Euskal Herrian ez da justiziarik izango bitartekoak edo legeak euskaldunok askatasunean erabakitzen ez ditugun bitartean.

BERGARAKO E.H.E.

Elayko langileen batzarrak bergarar eta antzuolarrei

1997ko abenduaren 10ean asanbladan elkartutako Elay Taldeko langileok, J.L. Elkoro gure lankide eta arduraduna espetxera eraman duen Auzitegi Gorenak Herri Bata-suna alderdi politikoko Mahai Nazionalaren aurka diktatutako sententzia, adierazpen askatasunaren aurkako atentatu larria dela uste dugu eta onartezina dela Zuzenbide Estatuan bizi garen heinean.

Beraz, J.L. Elkororen askatasuna esjizten dugu eta Euskal Herriari, eta bereziki Antzuola eta Bergarako herritarrei, ekintza eta mobilizazioetan parte har dezaten eskatzen diegu J. L. Elkororen askatasuna lehenbailehen lortu ahal izateko.

ELAY TALDEKO LANGILEEN ASANBLADA

Mahaikideen epaiketaz

HBko Mahai Nazionaleko 23 kideei ezarritako espetxe zigorraren aurrean, Komite Internazionalistak epai hau salatu nahi du adierazpen askatasunaren kontrako dela kontsideratuz. Gure ustez, ekintza politiko honen benetako helburua ezker abertzalearen disidentzia zigortzea eta kriminalizatzea da.

Joakera mota hauek Estatu-estrategia zabalago baten barne daudela uste dugu. Estrategia zabal horrek bilatzen du herri honen eskubideak erreprimitea eta gatazka egoerari irtenbide demokratikoa bilatu ordez enfrontamendu eta banaketa soziala areagotzea (bai Euskal Herriaren barne zein estatuko gainontzeko herriekin), hau guztia egungo gobernu espainiarraren probetxu elektoralerako.

Agerian dago, berriz ere, justiziak ez duela berdin jokatzeko guztiekin eta ez dagoela benetako banaketarik botereen artean. Demokrazia hitzaren manipulazioa ere oso nabarmena da.

Erakunde internazionalista honek bere elkartasunik zintzoena erakutsi nahi du HBko mahaikide guztiekin eta euskal preso politiko guztiekin.

KOMITE INTERNAZIONALISTAK

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ



Segoviara moto irteera domekan

Zapelaitz motorzale elkarteak urte amaierako irteera antolatu du domekarako. Irteera goizeko 09:00etarako iragarri da Zapelaitz aurrean eta Segovian bazkaldu ondoren, itzulera egingo dute. Interesa duenak aipatutako orduan eta tokian egotea besterik ez du.

Aitor Zabaletari omenaldia

Bergarako Udalak omenaldia eskainiko dio zapatuan eguerdiko 12:00etan Aitor Zabaleta kotxe pilotuari. Omenaldia Udaletzeko pleno aretoan izango da eta Bergarako Hiribildu Agiria emango diote. Ordu berean, aintzanako eta lasterketetarako kotxe eta motorren erakusketa egingo da San Martin plazan. Aitor Zabaleta Espainiako mendiko kotxeigoeretako txapelduna izan da azken hiru urteetan jarraian.

Euren asmoen berri eman diote herriko artistek Udalari

Beartek aurkeztu dio Udalari Boluko lokalean egin nahi dituzten proiektuen berri jasotzen duen txostena. Lokalean zuzendaritza eta administrazio lanak eramateaz gain, ikastaroak, lehiaketak, erakusketak, liburutegia eta bideoteka egiteko asmoa dute.

Bergarako artistek aurkeztutako proiektuan 16 urtetik gorako eta beharokoentzako margo, marrazki eta grabatu ikastaroak aurrikusten dira. Txostenean esaten denez, *"ikastaroak gazteek etorkizunera begira dituzten jakinminak asetzeko (Arkitektura, Arte Ederrak, Diseinua, Dekorazioa...) eta beste kasu batzuetan, arte munduan lanbidez edo aisialdi moduan dabiltzanentzat antolatuko dira"*.

Erakunde publiko eta pribatuak

Proiektua aurrera eramateko Beartekoak herriko, eskualdeko eta estatuko elkarte kulturalen laguntza ezinbestekoa dela azpimarratzen dute. Epe erdira begiraturuz Beartekoek diseinu grafikoko ikastaroak antolatzeko eta ekintza berezietarako



Beart-ek ageriko pintura lehiaketak ere antolatzen ditu.

eta denbora baterako tailerrak antolatzeko asmoa dute.

Horretaz gain, erakusketak, arte lanen bildumak, bidaiak eta hitzaldiak antolatuko lituzkete Boluko lokalean. Jarduera horien finantziaketa erabiltzaileen kontura izango dela adierazten dute Beartekoek. Halere, elkartekoek bazkideen dirulaguntzaz gain, erakunde publiko eta pribatuen dirulaguntza bilatuko dute.

Halaber, Bergarako artistek Udalari aurkeztutako txostenean adierazten dutenez *"Ez dago kultura munduan sartuta egon*

beharrik Bergarako pinturara munduan daukan potentzialaz konturatzeko. Potentzial hori Bergaratik kanpo ezagutzen da eta pintura munduan 'Bergarako Eskolaz' hitz egiten da. Herrian ekipamendurik ez dagoenez potentzial hori hiriburuetara zuzentzen da eta horregatik beharrezkoa da Bergaran kultur iharduera guzti horiek batzeko lokal bat. Era berean, gazteentzako ekintzen bidez, daukagun formazio artistikoa mantendu eta hobetu eta Bergara erakargarriago bihurtu abal izango litzateke gure ustez".

HILDAKOAK

Aste honetan, eguenera arte, ez da inor hil Bergaran.

JAIOTAKOAK

Lorena Elexpuru Gil
Azaroak 26.
Josu Martin Erdabide Bideluze
Abenduak 5.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

HIESari buruzko sentsibilizazio jardunaldiak

Txapa Irratiak eta HIES ekimenak HIESari buruzko sentsibilizazio jardunaldiak antolatu dituzte datorren astelehenetik eguakitzer bitartean. Martitzenean arratsaldeko 19:30etan Kultur Etxean "La niña de tus sueños" pelikula ikusi ahal izango da. Eguastenean arratsaldeko 19:30etan Kultur Etxean HIESa gertutik bizi dutenek hitzaldia eskainiko dute. Eguakitzean arratsaldeko 20:00etan kalejira irtengo da San Martin plazatik trikitilari, dultzainero eta hankapaluekin. Ondoren afari herrikoa egingo dute Oxirondo elkarteak. Aste osoan zehar HIESari buruzko irudiekin erakusketa izango da Errotalden eta astelehenetik eguenera bitartean iluntzeko 21:00etatik aurrera irratsaio bereziak egingo dituzte Txapa Irratian. Eguakitzean gaueko 22:00etan hasiko dira eta domekan, berriz, arratsaldeko 15:00etan.

Kintoen batzarra Gabon Eguna prestatzeko

Aurtengo kintoek, 1979. urtean jaiotakoak, batzarra antolatu dute hurrengo eguakitzerako arratsaldeko 20:00etan Kultur Etxeko aretoan. Bilera Gabon eguneko abestiak prestatzeko egingo dute eta kinto guztiak gonbidaturik daude.

Gazinema Antzuolan

Gaur, eguakitza, 22:00etan "Salto al peligro" pelikula ikusteko aukera izango da Gazinemaren programaren barruan, Antzuolako zine aretoan.



Sari banaketa ekitaldia San Balentin egunean, otsailaren 14an, izango da.

Amodiozko Gutunen lehiaketaren seigarren edizioa deitu du Jardunek

Orain arteko karta sarituekin liburua argitaratuko da

Jardun elkarteak Amodiozko gutunen VI. BERRIGARA lehiaketan parte hartzeko epea zabaldu du hurrengo urtarrilaren 14ra arte.

Lehiaketa 14 urtetik gorakoentzat da eta lanek gutun forma eta DIN A-4 orritan idatzita joan behar dira. Lanen luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan. Lanean ez da egilearen datu-rik jarriko, soilik lema bat. Egilearen datuak sobre itxi batean sartuko dira eta sobre horren azalean lanean jarri den lema bera jarriko da. Lanak eta egilearen datuak dituen sobrea beste sobre haundiago batean sartuta, honako helbidera bidali beharko dira: Amodiozko gutunen VI. Berrigara lehiaketa. Jardun elkarteak. Masterreka, 13 behea. 20570 Bergara.

Irabazleak 75.000 PTA, bigarrenak 40.000 PTA eta bergarar onenak 25.000PTA jasoko ditu. Irakurle gazteek emandako saria Xabier Diaz de Zerioaren eskultura bat izango da. Sari banaketa otsailaren 14an, San Balentin egunean egingo da, Gartzela Zaharrean, eguerdiko 12etan. Egun horretarako Jardun elkarteak azkenengo 5 urteetan sarituak izan diren gutun guztiekin atera nahi duen liburua kalean izango da.

Izan ere, urte hauetan 1.000 gutun inguru jaso dira eta gordeta egon beharrean, kaleratzea erabaki du Jardunek. Joan zen urteko lehiaketan 194 gutun jaso ziren eta aurtengo lehiaketari buruz informazio gehiago jaso nahi izanez gero Jarduneko 76 36 61 telefonora deitu behar da.



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

Asteleheneko lanuztean parte hartzeko deia luzatu sindikatuek

Joan zen eguastenean ELAk, LABek, CCOOko Ezker Sindikalak, Lankideak ESK-CUIS, STE-EILAS eta Hiru sindikatuek prentsaurrekoa eskaini zuten Arrasaten, bihar arratsaldeko 5etan, ELA, LAB, EHNE eta Elkarrik antolatuta HBko Mahai Nazionalaren kartzeleratzearen aurka Bilbon izango den manifestazioan langileei parte hartzeko deia luzatzeko. Manifestazioak "Konponbidea, demokrazia osoa" lema izango du eta sindikatuek isila izango dela azpimarratu zuten. Bestalde, astelehenean goizeko 11:00etatik

13:00etara lanuztea egiteko proposamenarekin bat egin zuten sindikatuek. Bi orduko lanuzteaz gain, sindikatuek eguerdiko 12:00etan manifestazioa egingo dute Bergarako San Martin plazatik irtenda. "Manifestazioa isila izango da eta zapatuko manifestazioaren lema berbera izango du. Helburua abalik eta kolektibo gebiennen elkartasuna lortzea baita" adierazi zuten sindikatuek. Era berean, Sindikatuek HBri ezarritako zigorraren aurkako jarrera azaldu zuten. UG Tk eta CCOOK ez dute bat egin greba deialdiarekin.

Ttanttaka Antzuolan

"Shakespeare osoa, gutxi gorabehera" lana antzetzuko du Ttanttaka taldeak zapatuan 22:30etan Antzuolako zine aretoan.

Kolonbiaren egoerari buruzko hitzaldia

Komite Internazionalistek antolatuta Kolonbiari buruzko hitzaldia emango du "Voces de Colombia" liburua idatzi duen Ion Arregi idazle eibartarrak. Berarekin batera aurtengo udan Kolonbian brigadista izan den lagun bat izango da arratsaldeko 19:30etan kultur etxean. Abenduaren 23an, martitzena, Nikaraguari buruzko diaporama ikusi ahal izango da gaueko 22:00etan Pol-Pol tabernan. Diaporama Komite Internazionalistetako bi brigadistek eskeinitako dute.

Altuna Akizuren erakusketa

Juan Jose Altuna Akizu margolariak erakusketa zabalduko du gaur Bilboko Berta Belaza galerian. Altunak azken urteetan egin duen lan grafikoa eta teknika mistoak erakutsiko ditu hurrengo urtarrilaren 8ra arte.

Diputazioaren eskaintza

Diputazioak, bakarrik dauden 65 urtez gorakoentzako afaria eta bazkaria antolatu ditu Eguberri eta Natibitate egunetarako. Eguberriko afarira joateko irteera arratsaldeko 18:00etan izango da eta afaria 21:30etan Donostiako Orly hotelean. Informazio gehiago nahi izanez gero, Bergarako hirugarren adineko egoitzara jo edo 76 21 40 telefonora deitu datorren eguena baino lehen.



Presoen senideek egun hauetan Euskal Herrian zehar egiten ari diren martxaren berri eman zuten.

Senideak-en ibilaldia

Senideak-ek presoen eskubideen alde antolatu duen martxa joan zen eguakitzean Bergarara heldu zen. Presoen senitartekoak 20 egunetan zehar herriz herri dabilta euren senideek bizi duten egoera azaltzen. Horretarako, herri bakoitzean hainbat elkarrizketa

egin dituzte. Bergaran alkatearekin hitz egin zuten eta ondoren Artatse elkartearen prentsaurrekoa eskaini zuten. Prentsaurrekoa martxan parte hartzen ari diren bi kidek eta Jose Mari Etxaniz eta Jabi Lazkano preso bergararren senideek eman zuten. Ibilaldia abenduaren 20an bukatuko da.



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre. Tf. 76 71 19



Urtarriletik aurrera ingeles ikastaro trinkoak

Maila guztiak
CAMBRIDGEKO AZTERKETETARAKO
PRESTAKUNTZA BEREZIA
Goizez eta arratsaldez

Informazioa: Ibargarai 31 Juan XXIII plaza Tf eta F 76 03 53.



Berrigara Gida 98

Partikularrei:

Berrigara Gida 98 liburutxoak, ohiko telefonoez gain, herriko partikularren telefonoak ere jasoko ditu aurten. Beraz, intereseko telefonoak, komertzialenak eta partikularrenak jasoko ditugu, hau da, **Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak**. Partikularren telefonoak Telefonick 1995eko azaroan argitaratutako listinetik hartuko ditugu; harrezkero **telefono berria jarri baduzu, esan iezaguzu guk gidan ipin dezagun.**

Azkar ibili, azken egunak baitira.

BERRIGARA

Osasuna

Gehigarri bitaminikoak

- Bitaminek, zer nolako garrantzia dute?

- Bitaminak gorputzak behar dituen sustantziak dira, ezin ditu gure gorputzak sintetizatu eta horregatik elikagaiekin hartu behar ditu. Amina taldeko molekulak aurkitu zirenean, bitaminak ziztuztela ikusi zen eta bizitza egoki baterako ezinbestekoak zirenez, "bitamina", izenez izendatu ziren. Erreakzio kimikotan gure gorputzak bitartekari modura erabiltzen ditu.


- Zer esango zeniguke gehigarri bitaminikoei buruz?

- Bitaminei buruzko ideia asko oker erabiltzen dira kalean. Arruntena suplementazioari dago-kiona da. Askotan bitamina gutxi jaten ditugula uste dugu, edo gehiago behar ditugula eta hartzen den irtenbidea gehigarri bitaminikoena da. Bitaminei buruz jakin behar den lehenengo gauza zera da: beharrezkoak direla bai, baina beste elikagaiekin gertatzen den

moduan, neurri egokian.

- Zelan jakin dezakegu beharrezkoa zaigun bitamina kopurua?

- Behar dugun bitamina kopurua ezagutzeko RDA-k ditugu, egunero zenbat bitamina jan behar direneko errekomendazioak. Denak ez dira berdinak; bitamina batzu besteak baino gehiago erabiltzen dira, eta ondo-



BITTOR RODRIGUEZ

(Dietista eta Elikagaien teknologoa)

rioz RDA edo errekomendazioa altuagoa da. Adibidez C bitamina askoz gehiago erretzen da B12 bitamina baino.

Komeni da jakitea zenbait bitamina "almazentatu" edo erreserba modura gorde ditzakegula, bitamina lipidikoak hain

zuzen, A, D, E eta K bitaminak. Besteak uretan disolbagarriak dira eta gehiegi hartzen baditugu txizaren bidez kanporatzen ditugu (adibidez C bitamina, B taldekoak...).

- Eta zer gertatzen da bitamina gehiegi hartuz gero?

- Hor dago arriskua, "akumulatzen" diren bitaminak gehiegi hartuz gero arazoak egon daitezkeela. Ez da oso normala izaten, baina kasuak egoten dira, batez ere Estatu Batuetan. Suplementuen pilulek normalean RDA-ren %100 daukate. Hau da, bi pilula hartuz gero beharrezkoa baino bi aldiz gehiago hartzen dugu. Sintoma toxikoak izateko RDA-k askogatik superatu behar dira, zenbait kasutan halako 25 hartuz gero agertzen dira sintomak. Uretan disolbagarriak diren bitaminak gehiegi hartuz gero txizarekin botatzen ditugu.

- Gehigarri bitaminikoak gomendatzen dituzu?

- Bakarrik kasu berezietan, eta beti medikua-ren aginduak jarraituz. Adibidez, zenbait haurdunetan, goi mailako kirolarien kasuan, barazki-jaleetan..., baina norberak ez ditu hartu behar bere kabuz, dietan fruitak eta barazki fresko ugari hartzearekin egunero nahikoa izaten da.

"Beste elikagaiekin gertatzen den moduan, bitaminak ere neurri egokian hartu behar dira"



Goi mailako kirolariek gehigarri bitaminikoak hartzen dituzte.

Tapizeriak

Moketak

Alfonbrak

GASTON Y DANIELA

IREKI BERRIA


Kruz Gallastegi 3an! ☎ 76 07 37

Eta orain

gazteendako, umeendako
eta ume jaioberriendako
altzariak

Trena berriz Bergaran

Abiadura Haundiko Trena Bergarara bidean



Jaurlaritzako Garraio departementuak Abiadura Haundiko Trena 2003 urtean martxan egoteko asmoa azaldu zuen uztailen.

Jaurlaritzaren asmoak betetzen badira, Abiadura Haundiko Trena Bergarara heldu daiteke XXI. mendean. Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen trenbideak, "Euskal Y" a delakoak, eztabaida sakona piztu du gizartean azkenaldian. 1971 urtean igarozen azken trena Bergararik, Goiko Estazioetik, baina etorkizuneko AH-Tak ez du zerikusiri handirik izango garai bateko makina haiekin.

Abiadura Haundiko Trenak, gehienez, 250 kilometro orduko abiadura hartuko du eta Euskal Herrian egingo duen ibilbideak "Y" forma duenez, "Euskal Y" a bezala ezagutzen da proiektua.

Espainia Europear Batasuneko kide izatera pasatu zenean (1986 urtean) Europako abiadura haundiko trenbide sarea bultzatzea erabaki zen. 2010 urterako European 25.000 kilometro inguruko tren-

bide sare berriak eraikiko direla aurreikusten da.

Eusko Jaurlaritzak eta RENFEk trenbidearen alternatibaren azterketarako kolaborazio hitzarmena sinatu zuten 1988an eta ondoren "Euskal Y"aren aurreproiektua eta azterketa osagarriak 358 milioi pezetan adjudikatzea erabaki zen. Administrazio zentrala eta autonomikoa akordio batera heldu ziren 1993an proiektu definitiboaren erredakzioa egiteko eta "Euskal Y" de-

lakoia European zeharko trenbide sareen barruan integratu zen. Egin beharreko inbertsioa 400 mila milioi pezetakoa izango dela espero da eta Gobernu zentralak zein Gasteizkoak elkarrekin finantzatzeko hitzarmena sinatua dute.

Hiru alternatiba

Afektatutako herrietan ingurune inpaktoaren laburpena bidali ondoren, 1994an "Euskal Y"aren

Oraindik trazadura definitiboa onartu ez den arren, badirudi Jaurlaritzak alternatibetako baten aldeko apostua egin duela jadanik

proiektuaren berri emateko informazio faseari hasiera eman zitzaion. Era berean, Jaurlaritzako Garraio Departamentuak "Sektorekako lurralde plana" erredaktatu zuen. Bertan, gaur egungo trenbide sareen (Eusko Tren, RENFE, FEVE eta Bilboko metroa) azterketa urbanistikoa egiteaz gain, Abiadura Haundiko Trenaren gainean landutako hiru alternatibak azaltzen dira.

Oraindik ere proiektu definitiborik ez dagoen arren (hainbat herrik aurkeztutako alegazioak aztertzea falta da), badirudi alternatibetako baten aldeko apostua egin dutela jadanik Euskal gobernuak eta Madrilekoak. "Euskal Y"ak bost estazio besterik ez ditu izango: Donostia, Bilbo eta Gasteizko geltokiez gain, Zumarragak

geltokia izango du eta Durango eta Zornotza artean beste bat kokatuko da.

Trenak, gehienez, 225-250 Km./orduko abiadura izango du eta bidaien iraupenari dagokionez, alde handia izango da gaur egun eza gutzen ditugun bidaiekin konparatuz gero. Horrela, Donostiatik Gasteizerainoko tartea 39 minututan beteko du AHTak, Donostiatik Bilbora joateko 45 minutu baino ez dira behar izango edota Gasteizetik Bilbora bitarteko ibilbidea trenean egiteko 30 minutu nahiko izango dira. Trazadurari dagokionez, ibilbide gehiena


(%54) tunel azpitik joango da. Guztira 128 kilometrotan tuneletik igaroko da Abiadura Haundiko Trena.

Obra erraldoi honen finantziarioak dirutza handia eskatuko du. Bilbo eta Gasteiz bitarteko ibilbidea Estatuko aurrekontu orokorretatik ordainduko da eta Gasteiz eta Behobia bitartekoa %55 europar fondotik eta gainontzekoa Espainiako Estatuak, Eusko Jaurlaritzak eta kapital pribatuak. Jaurlaritzaren partetik "Euskal Y" a beharrezkotzat jotzen da hiru euskal hiribururen lotura eta frantses sarearekiko komunikazioa egiteko. Hala

ere, finantziarioaren gaia ez dago guztiz argituta oraindik, eta Jaurlaritzak datorren urtearen azken aldera obra egiten hasteko asmoa azaldu badu ere, Madrilek izango du azken hitza Abiadura Haundiko Trenari beharrezko bultzada eman ahal izateko. Jose Antonio Maturana Garraio sailburuak 2003 urterako proiektua amaituta egoteko itxaropena azaldu zuen joan zen uztailean.

Kontrako ahotsak

AHTren proiektua eza gutzera eman zenetik, proiektuaren kontrako ahotsak entzun izan dira.



Azken trena 1971n igaro zen herritik

Abiadura Haundiko Trenaren proiektua gauzatzen bada, berriz ere trena iritsiko da gure herrira. Azken trena, Maltzaga eta Zumarraga bitartekoa, 1971n igaro zen azken aldiz Bergaratik, Goiko Estazioetik.

Mikel Murgizuk emandako datuen arabera, 1882an Bilbo eta Durango arteko trenbidea egin zen eta linea horrek izan zuen arrakasta ikusirik, Durango-Zumarraga trenbideko konpainia eratu zen. Horrela Bilbo-Durango linea Madril-Irun linearekin lotzeko asmoa zegoen eta, aldi berean, Elgoibar eta Maltzaga bitartean trenbidearen adar bat egin zen.

Aipatutako linea zatika zabaldu zen: Durango-Eibar, Eibar-Maltzaga, Maltzaga-Bergara (1888) eta, azkenik, Bergara-Zumarraga (1889). Murgizuk azaldu digunez, "linea horrek kontrako asko azaldu zituen Soraluze, Bergara eta Antzuolako bizilagunen artean eta hemengo

enpresetarako ere ez zen beharrezkoa.

Inaugurazio ofizialik ez zen egin eta buruhauste bat baino gehiago ekarri zuen desjabetzeen etabarren ondorioz.

Horrez gain, trenbideak enpresei mesederik ez ziela egiten frogatu zen eta arazo asko izan zituen, batez ere Bergara eta Deskarga bitarteko deskarrilatzeak zirela medio. 1893eko uztailaren 14an gertatutako istripuaren ondorioz, Antzuolan 7 hildako eta 40 zauritu izan ziren".

Garai hartan batez ere dirudunek zeukaten trenean bidaiatzeko aukera eta herritarrak ez zeuden ohituta kea zerien burdinezko makina erraldoiak abidan ikusteko. Esan bezala, Zumarraga eta Bergara bitarteko trenbidea 1971n itxi zen.



Argazkian, Bergara
1919an heldu zen
makina. PEDRO J. EGUREN

Beheko Estazioari dagokionez, Gasteiztik zetorren linea 1919ko irailean inauguratu zen. Pedro Jose Egurenek emandako datuen arabera, goiko trenbideko lineak 1929an elektrifikatu ziren eta Gasteiz-Bergara bitartekoa, berriz, 1938an.

Ehungintza enpresek, Altos Hornosek eta beste hainbat enpresek eragin handia izan zuten azken linea honen eraikuntzan.

Linea honek garrantzia handia izan zuen Bergarako industriaren hazkundera 1967ko abenduaren 31n ixtea erabaki zen arte.

1993an Abiadura Haundiko Trenaren aurkako asanblada sortu zen. Behin eta berriz aipatzen diren abantailen (azkartasuna, segurtasuna, goi mailako zerbitzua edota komunikabideen hobekuntza) aurrean, asanblada honek bestelako argumentuak plazaratu ditu. Asanblada honen iritziz, AHTak lurralde eredu zentralizatua eta desorekatua bultzatzen du, hiri

haundien arteko komunikazio azkarrari lehentasuna ematen zaiolako eta ez direlako kontutan hartzen inguruneari eragindako kalteak eta trenbide sare berriak baztertuko litzukeen herri eta eskualdeak. Asanbladaren ustetan, lurralde desoreka horretan kaltetuenak nekazaritza eremuak izango dira. Bestalde, sare horren erabileraren aurrean zailtzak agertzen dituzte,

beraien esanetan, abioiaren ohizko erabiltzaileak izango baitira trena erabiliko dutenak eta ez gizartearen gehiengoa.

Angiozarko bailara

Bergaran, Angiozarko Bailarako Batzarrak ere bere kezka azaldu du proiektu honen aurrean. Joan zen maiatzean Bergarako Udalbatzak AHTa, Angiozarko bailaratik pa-

satu beharrean, Epeletik pasatzeko alegazioa onartu zuen, Angiozarko Bailararen eskakizunari erantzunez. Badirudi, trazadura definitiboa izango denaren arabera, AHTak, Antzuolatik Bizkaira bidean, Angiozarko bailara zeharkatuko lukeela (Bergaratik Angiozarrera goazela trena ondoko bailaratik pasatuko litzateke, erreka ezkerretik hain zuzen). Trenaren ibilbide gehiena tunelpean bada ere, Azkuna inguruan trena agerian geratuko litzateke 500 bat metroan eta Angiozarko kanposantzuaren inguruan trenbideak bi

Bergarako Udalbatzak alegazio bat onartu zuen AHTa, Angiozarko bailaratik pasatu beharrean, Epeletik pasatzeko eskatuz

adar izango lituzke, bata Bizkaia aldera eta bestea Gasteiz aldera (Udalatx ondotik igaroz).

Deba Garaiko Mankomunitateak ere Angiozarrren sortuko litzatekeen "Y" hori Epele inguruan kokatzeko eskakizuna egin du baina badirudi Jaurlaritza aurreko proposamenaren alde dagoe-la Epeleko kokaguneak ere hainbat arazo aurkezten baititu: Angiozar libre geratuko litzatekeen arren, Bizkai alderako trenbide adarra Kanpazar inguruan egin beharko litzateke orduan eta Gasteiz alderako adarra, berri- z, Arrasateko herri erdi- tik gertu geratuko litzate- ke.

Mankomunitateak, era berean, Deba Garaiko biztanle kopurua, indus- tria iharduera eta kokagu- ne geografikoa kontutan

izanik, gure inguruan gel- toki bat jartzeko eskaera egin zuen baina Jaurlari- tzak zabalduetako azken informazioen arabera ez

da horrelakorik gertatu- ko. Deba Garaiko Mankomunitateak ere bere kez- ka azaldu zuen Eibar- Gasteiz autopista, Bea-

sain-Durango korredorea eta Abiadura Haundiko Trenaren eraikitzeak gure ingurunean eragingo lu- keen kaltearen aurrean.



Bergaran, Angiozarko Bailara izango da kaltetuena AHTaren etorrerarekin.



Euskal Herrian okela ona dugu



EUROPAKO ELKARTEAREN PARTAIDETZAREKIN FINANTZATUTAKO KANPAINA

EUSKO LABEL



KALITATEA



Kalitateko Euskal Labelarekin identifikaturik eta ziurtaturik iristen zaio okela kontsumatzaileari

KALITATEKO EUSKO LABELA DUEN ABELGORRI OKELA

Kalitateko Eusko Labela duen Abelgorri Okela Baimendutako Harategietan bakarrik saltzen da

●Labeldun okelen salmentan duten espezializazio maila handia dela eta, ikur honekin (▶) adierazitako Harategi Baimenduek ARTISAU ERAKO HARATEGI ESPEZIALIZATUEN sailkapena dute Kalitateko Eusko Labela duten produktuetan

BERGARA

- ▶ CARNICERÍA URZELAI
IBARGARAY, 16 - BAJO
- ▶ CARNICERÍA JON LETURIA
PEDRO DEUNA, 24
- ▶ CARNICERÍA ANDRÉS MUJIKA
DOMINGO IRLA, 5
- BIXAIN HARATEGIA
AZOKA PLAZA, PTOS. 5-6

ANTZUOLA

- ▶ MUJIKA HARATEGIA
KALEBARREN, 1
- ▶ GABILONDO HARATEGIA
KALEBARREN, 14
- SORALUCE-PLACENCIA
- JAVIER ALBERDI HARATEGIA
RABAL, 24

Gabonetako loterian jokatzeko ohiturarik badaukazu?



Antonio Luarizaristi

Gutxi. Jokatzen dudana hortxe Gabonetan, piskat. Aurten 2.000 pezeta inguru jokatu ditut, ez daukat jokatzeko ohiturarik. Behin 200 mila pezeta irabazi nituen.



Joseba Jauregi

Beti jokatzen dugu zedozer, 2.000-3.000 pezeta bakarrik. Tokatu? Sekula ez zait ezer tokatu baina jokatzeko geratzea erridikulo samarra omen denez...



Mertxe Vazquez

Bai, badaukat jokatzeko ohitura. 3.000-4.000 pezeta jokatzen dut baina orain arte ez zait sekula tokatu. Bakarrik Gabonetan jokatzen dut.




Agustina Herran

Beti jokatzen dugu zerbait, bai. Gizonak hartzen duena, 3.000 pezeta inguru. Noizean behin botatakoa tokatu zaigu baina ezer gutxi...



Rosa Mari Aranzabal

Bai jokatzen dut. Iaz 20.000 pezeta inguru jokatu nituen eta aurten antzerako kopurua izango da. Urtean zehar astero jokatzeko ohitura daukat.



Imanol Alberdi

Bai, badaukat jokatzeko ohitura, bastante gainera. Igual 20.000 pezetara arrimatuko naiz aurten, erregalatzeko ere hartzen dut eta. Sekula ez dut ezer irabazi.

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78



MARGA JANTZIDENDA

BEROKIA, PARKA EDO TXAKETOIA EROSTEAGATIK
PRAKAK EDO JERTSEA OPARI!!!

Aprobetxatu Gabonetako gure eskaintza bereziak.

MARGA JANTZIDENDA, SAN PEDRO 20 TF/F. 76 05 37



Garbitu zure arima

Gabonetaz gozatzeko milaka era ezberdin badaude ere, gehienok asko erosten, gehiago jaten eta gehixeago edaten pasatzen ditugu. Egun hauen benetako zentzia gogoratzen duenik ba ote dagoen zalantzan jartzen dudan arren, anaitasuna ideia oraindik airean dagoela iruditu zait azkenaldian; ez dago data aproposagorik gure arimatxoei hautsa kentzeko obra on bat eginez.

Telebista kate ezagun bateko arduradunak inor baino lehenago jabetu ziren honetaz eta trebezia haundiz ekimen humanitario bat martxan jarri zuten. Honen emaitzaren berri aste honen buruan jakin dugu: hirugarren munduko 45.000 haurren amaponteko eta aitaponteko bihurtu ziren milaka espainiar hogeitalau ordutan.

Albistea askok txalotu duten arren, niri benetan kezagarria iruditzen zait jendearen pasibitatea. Lurralde ez garatuen arazoak aski ezagunak dira orain dela urte asko, baina TB programa batek "on bihurtzeko" aukera saldu digun arte ez gara konaturatu.

Bestalde, ez dago hain urruti joan beharrik pertsona behartsuen samina gutxiarazteko, gure herrian ere badago eta zertan lagundu. Baina hemen diru kopuru altuagoa behar da edonoren bizitza ziurtatzeko eta, noski, hori gehiegi eskatzea da.

Argi dago milaka pertsoneri bekaturen zama arintzen lagundu diela ekimen honek, baina niri oraindik zalantza bat gelditzen zait: Gabon gaueko afarien ondarrak Somaliara bidaliko ote dituzte?

Maria URZELAI



Telemaratoiak

Joan den asteburuan argi eta garbi ikusi genuen telebistak duen boterea. Moros y cristianos programak marka berri bat jartzeko asmoa hartu zuen: 24 orduko programa baten barruan Hirugarren Munduko 10.000 haurri aitaponteko-amapontekoak aurkitzea. Ez nuen emanaldia ikusi; beraz, hurrengo lerroetan Gabon inguruan ugari izaten diren telemaratoiak aipatuko ditut.

Garbi dago programok bi helburu betetzen dituztela: bata telebista-katea eta bertako izarrek bultzatzea eta ahalik eta ikuslerik gehien erakartzea; bestea, ikusleei kausa on baten alde parte hartu eragitea, normalean beharrean den jendeari laguntzeko. Ez dut zalantzan jarriko laguntza horren balioa, behartsuei laguntzea beti baitago ondo. Burura datorkidan zalantza beste bat da: zerk du indar haundiagoa ikuslearen eta emanaldi hauek antolatzen dituzten telebista-kanalen izpirituan? Benetako solidaritateko jarrerak ala lehiakidetasun izpirituak bultzatzen du guztion ekintza?

Hauek dira ikuslearen lehiakidetasun izpiritua suspertzen duten elementu batzuk: normalean baino programa luzeagoak dira; marka berri bat jarri nahi da eta ikusleari, une batez behintzat, inportante sentitzeko aukera ematen zaio, ezagunak diren pertsonaiekin hitzegiten duelako eta baita taldeko balentria batean parte hartzeko aukera ematen diolako ere. Eta hori gutxi baltiz, gainera honekin ikusleari urtean derrigorrez egin beharreko ekintza ona, kasu askotan egin gabe dagoena, egiteko bidea eskaintzen dio.

Hori da, beraz, aidean geratzen den galdera. Dena den, ez dut uste laguntza jaso duten umeei galdera hori gehiegi inportako zaienik, eta bai alderantziz jasotako laguntza, gobernu guztiek ukatzen dieten laguntza hori.


Antonio ZABALA

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53



GAZTELU

BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65



■ **Oioneko monasterioan**

Aritzeta abesbatzak **Miren Edurne Albeniz** bergararren **monja ordenazio ekitaldian** abestu zuen astelehenean, **Oioneko Santa Maria de Barria monasterio zistertarrean.**



Imanol Urzelaik zuzendutako abesbatzak mezan kantu batzuk eskeini zituen eta ondoren bergarar abeslariek

Miren Edurne Albenizen senideekin batera Oionen bertan bazkaldu zuten. Aritzetako 36 lagun joan ziren astelehenean Oionera Miren Edurneri laguntzera. Aurreko astebukaeran Barrian, Araban bertan, konzentrazio txiki bat egin zuten ahots teknika lantzeko eta Gabonetarako abesti batzuk prestatzeko. Aritzetakoek **San Esteban de Narbatxako** elizan izandako mezan lagundu zuten, *Kirie*, *Ave Maria* edota *Aita Gurea* kantuak eskeiniz. Mezaren ostean, emanaldi txiki bat eskeini zuten, besteak beste, *Ator ator mutil*, *Jacinto Chiclana*, *Jerusalem* eta *Soon ah will be don't* izenburuko kantuekin. Bestalde, datorren urteko **Santa Marina egunerako** Hego Euskal Herriko beste lau abesbatzekin batera jaialdi bat antolatzeko asmoa dauka Aritzetak.



■ **Musikari gazteak**

Udazken Kulturalaren programazioaren barruan, musikari gazteek ere badute bere tarte. Joan zen eguakitzean **Musika Eskolako ikasleak** izan genituen protagonista Novedades aretoan antolatutako kontzertuan. **Cristina Larrañagak** zuzendutako Haurren abesbatzak, **Elena Perez**en Txistu taldeak, **Mikel**

Markiegiren Metal taldeak, **Jasone Camarak** (**Maria Jesus Ugalde** ordezkatuz) gidatutako Akordeoi Orkestak eta, azkenik, **Alberto Laskurainen** Gazteen Bandak entzule ugari erakarri zuten Novedadesera eta benetan kontzertu atsegina eman zuten. Musika Eskolako **125 bat ikaslek** hartu zuten parte emanaldian eta entzule gazte eta helduek musikari gazteek interpretatutako kantu ezagunekin gozatu zuten. Hau harrobi emankorra hau!!

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria
Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil
Irizar, 3 Ibargari, 8
☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73

MUJIKA
Jantzidenda
Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91



■ **Aisialdi eskeintza Gartzelan**

Bergarako gaztetxoek aukera ezin hobea daukate sasoi honetan euren **aisialdia Gartzela Zaharrean** igarotzeko. Jardunek antolatuta, **11 urtetik 14 urtera** bitarteko neska-mutikoez zapatu eta domeketan hainbat ekintza egin ahal izango dituzte: eskulan tailerrak, mahai-jokoak, musika emanaldiak, mendi irteerak eta abar. Gartzela, zapatu eta domeketan, 16:00etatik 20:00etara izaten da zabalik eta bertan parte hartzeko bi argazki eraman eta 3.000 pezetako kuota ordaindu besterik ez dago. Ikasturte osoan zehar izango da izena emateko aukera (dagoeneko 98 lagun apuntatu dira) eta begirale lanetan **Nuria Barrero, Saioa Berraondo, Kepa Eguren, Nekane Gabilondo, Nerea Gallastegi, Idoia Ilarduia eta Aizpea Uribe** arituko dira. Aurreko astebukaerako zubian 34 gaztetxo eta 6 begirale **Arrateko**

aterpetxean izan ziren.

Eguraldi ona aprobetxatuz mendi irteerak egin (beheko argazkia) eta Arrate inguruan jolasak egiteko aprobetxatu zuten, elkarrekin primerako astebukaera igaro zutelarik.



Zertan dihardute ba?



Jon Andueza kazetari arrasatearrak zuzendu eta Xabier Alberdi "Sato" k ekoiztutako "Laugarren galeriatik" izenburuko laburmetraiak lehen saria jaso zuen Lekeitioko XX. Zinema eta Bideo Jaialdian. Laburmetraia Jon Anduezak idatzi eta Bergarako Udaleko 1991ko Literatur lehiaketan saritutako izenburu bereko ipuinean oinarrituta dago. Kartzeleratutako bi presoren artean sortzen den erlazioa kontatzen da, besteak beste, eutanasia, homosexualitatea, edota askatasun eza aztertuz. Lekeition euskarazko 62 zinta izan ziren lehian.

ARTISAUTZAKO IZOLAZIA

GOYO-TOKI

D. Irala, 3 - Tlf. 761235
 Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
 BERGARA

ZUBIETA
 elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
 ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
 ☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
 Leihoak, atekak, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
 konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
 Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Maite Retegi

Maite Retegi bergararrak 15 urte daramatza kartero lanetan. Soraluze, Madril eta Eibarreko Correos-eko bulegoetan lanean izan ondoren, azken 5 urteak Bergaran eman ditu. Ezkonduta dago eta seme bat daukate.

- Zelan hasi zinen kartero lanetan?

- Uda batean lanean hasi, ondoren oposizioak egin... eta hemen nago.

- Bulegoko lana ala kanpoko?

- Kanpoko.

- Egunean zenbat kilometro egiten dituzu?

- Ez dakit. Hiru bat ordu oinez...

- Motorra ez duzu erabiltzen?

- Eeeez!! Gainera ez daukat karnetik.

- Egunero zenbat karta banatzen dituzu?

- 1.200-1.500 bat, herri erdian.

- Atarietan sartzeko arazorik?

- Gutxi, jendea jatorra da.

- Lan gehien noiz?

- Gabonetan.

- Lanerako sasoirik onena?

- Otsaila-martxoa.

- Oporrak noiz hartzen dituzu?

- Irailean.

- Olentzero eta Erregetako kartak heltzen hasi dira?

- Ikusten dira batzuk bai.



“Egunero 1.200-1.500 karta inguru banatzen ditut, gehienetan herri erdian. Lan gehien Gabonetan izaten dugu eta hasi dira heltzen bai Olentzero eta Erregetako kartak”

- Gabonetako zorion tarjetarik bidaltzen duzu?

- Ez daukat ohiturarik.

- Korreo elektronikoa erabiltzen duzu?

- Ezta.

- Eskutitzak idatzi ala telefonotik berba egin?

- Telefonoa nahiago.

- Seiluak kolekzionatzen al dituzu?

- Ez.

- Lanbidez aldatzekotan, zer izatea gustatuko litzaizuke?

- Zuzendaritza Idazkaria.

- Gabonak gaztetxoentzat ala nagusientzat?

- Guztiontzat.

- Gabonak herritik kanpo igaroko zenituzke?

- Ez.

- Zein jostailu oparituko zenioke semeari?

- Aurten game-boy bat eskatu du...

- Hobby bat?

- Bidaiatzea.

- Nora egingo zenuke bidai?

- Kanadara.

- Urtaro bat?

- Uda.

- Durangoko liburu eta diskoaren azokan izan zara?

- Ez, aurten ez.

- Gabonetako loterian jokatzeko duzu?

- Bai, piskat.

- 200 milioi irabaziz gero, zer egingo zenuke?

- Jubilatatu!!!

Bolintx

O K I N D E G I A

domeketan ere zabalik


Zurradero, 2 behea Telefonoa 76.01.26

DENA 100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

Jose R. Fernandez

PORTAERA PSIKOLOGIAKO GABINETEA

Antsietatea, depresioa,

ikasketa eta portaera arazoak eta informe perizialak

Ramon Maria Lili 2 behea

Tf. 76 59 39

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15

☎ 76 25 03

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Martokon. ☎ 76 00 51.

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan. 150 m2. ☎ 76 11 89.

Garaje bikoitza alokairuan Torrekan. ☎ 76 30 32.

Pisua alokairuan Bidekuru-tzeta 14an. ☎ 76 36 99.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 27 61.

Pisua alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 63 10 (gauzez).

Garajea salgai Martokon. ☎ 76 35 50.

Pisua salgai Aranerrekan. ☎ 76 42 65 (gauzez).

Zubiaurren pisua osatzeko jendea behar da. ☎ 76 71 12.

Garajea salgai Masterrekan. ☎ 78 36 65 (20:00etatik 22:00etara deitu).

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 41 16.

Etxea alokairuan Antzuolan. ☎ 76 64 24.

Pisua salgai Antzuolan. ☎ 76 64 65 (12:00-13:30).

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 56 99.

Garajea salgai Masterrekan. ☎ 76 24 57.

Garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 45 60/51 45.

DENETARIK

Andregai jantzia saltzen dut. ☎ 76 26 70.

Disko singleak erosiko nituzke. ☎ 52 65 77.

Suzuki GSX 600 F motorra egoera onean salgai. ☎ 76 25 61.

Karta txapelketaren final egunean txamarra bat azaldu zen Pertxan.

Opel Kadett kotxea salgai (SS-AC). ☎ 76 29 81.

Kanowey motorra saltzen dut. Egoera eta prezio onean. ☎ 76 24 57.

Pultsera bat galdu nuen Mugertzako gainean. Sari-tuko da. ☎ 76 12 86.

Vitus bizikleta egoera onean salgai. ☎ 76 08 21 (20:00etatik 22:00etara).

Belarritako bat topatu dut T. Aranzadin. ☎ 76 57 74.

Aprilia rally motorra (49 cc.) salgai. ☎ 76 62 24.

Botoiak forratzeko makina, kaja errejistradora eta hariendako armarioa erosiko nituzke. ☎ 85 09 18.

Pioneer musika ekipoa salgai. ☎ 907 40 28 27.

LANA

Gaztetxoei marrazketa librean laguntzeko prest nago. ☎ 76 34 83.

Ettxeko garbiketarako egiteko emakumea eskeintzen da. ☎ 76 38 00.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Andre batek zaharrak zaindu edo ettxeko garbiketarako egiten ditu. ☎ 76 00 90.

Enpresaritza Zientzietako matematika irakaslea behar da. ☎ 76 38 28.

OHO eta DBH klaseak Antzuolan. ☎ 78 71 32.

Ettxeko garbiketarako egingo nituzke. ☎ 76 13 46 (Dorleta).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 53 88 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 24 31.

Mate klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72 (Nerea).

Helduak zaindu edo ettxeko lanak egingo nituzke astebukaeran. ☎ 76 56 66.

Lizentziatu batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. ☎ 76 70 40.

Neska batek astebukaeretan helduak zaindu eta ettxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 56 66.

Administratibo lanerako titulodun neska eskeintzen da. ☎ 907 94 06 67.

Ettxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 42 63.

Mate, fisika eta informatika klaseak. ☎ 76 46 03.

OHO eta BBB klaseak ematen dira. ☎ 76 33 26.

I
G
E
L
T
S
E
R
I
T
Z
A

BIAK, S.L.

Fleming doktorea, 5
BERGARA
Mobilak:
907 44 50 38
907 46 57 38

I
G
E
L
T
S
E
R
I
T
Z
A

JAKIÖN

Deba Garaiko Baserriko Barazki eta Fruta Kontserbak

JAKION S.L. • San Miguel plaza, 4 etxabea.
20530 Leintz Gatzaga • Gipuzkoa
Tf.:(943) 71 46 86 • Faxe: (943) 71 46 21



BERGARAN honako denda hauetan salgai

- Aldi Irala Irizar, 3
- Laskurain Artekale, 4
- Arantxa Azoka

ANTZUOLAN honako denda hauetan salgai

- Juan Jose Agirre Harategia Kalebarren, 1
- Mujika Harategia Kalebarren, 1

BONOFOTOA



M. A. ELKOROBREZIBAR

Kontxita Arroiabe

Kontxita Arroiabek jaso du oraingo honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galderaren erantzuna berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen harraska edo garbitegiaren ondoan dagoen egoitzaren izena galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Mizpirualde** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Kontxi Arrozaberi** eman dizkiogu. Zorionak!!



Zein da elkarte honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 PTA

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

Lehen maila

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	25	10	39	13
2. MONGATXURRAK	23	10	30	15
3. A ZE FLAXA ETXAGI	21	10	36	16
4. PAGOMENDI	19	11	51	29
5. AZPEITXI JATETXEA	17	11	42	35
6. ETXAGI	15	11	40	37
7. BAR CANALEJAS	14	11	34	36
8. BILDURBAREK OPEL/LAM	12	11	25	35
9. JAUJA OH ZEREZOS	10*	11	30	51
10. AGINASPI	9	11	28	59
11. ARLOTEAK/OILAGORRA	7	11	16	29
12. ORTZI	5	10	16	32

A multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. AGIRREBEÑA JATETXEA	27	11	72	22
2. EZINLEIKE	24	10	68	28
3. MANITOU	22*	10	69	10
4. SHAKTALE	19	10	52	14
5. MOSKIS	16	11	36	34
6. MRW	16	11	37	39
7. INDARGORRI	14	11	51	38
8. ALDOKA MALDOKA	14	10	26	30
9. GANBARA ARI ARI	13*	10	24	24
10. POLIDEPORTIVO TABERNA	6	11	34	88
11. IGANDEKOAK	3*	10	31	55
12. KAIXO	0	11	12	130

B multzoa


TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. SLO	24	10	42	25
2. ARTUSAMAK	24	9	69	18
3. BAYER	21	10	36	26
4. AMOZKIBAR	16	9	31	29
5. AUTOBEREZI	16	9	41	44
6. UVE BIKOITZA	15	9	34	27
7. JAKINA PT	12	10	38	34
8. USOA	9	10	37	50
9. ERDIBITERRAK	8	10	31	39
10. TXIPIRON	7	10	22	45
11. AMILOTX	1*	10	14	58

C multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. GUADALEST	24	10	39	24
2. FAC	24	9	52	19
3. LA JUVE	22	10	35	18
4. MATXAKATEGI	15	10	27	35
5. UFALA	15	9	34	27
6. ERI SIRIMIRI	13	9	27	28
7. KOMANDO PIPERRAK	12	10	28	34
8. BAR GANBARA	10	10	34	36
9. ETENGABE	10	10	25	34
10. LA PEÑA DML	6*	9	26	35
11. PATATUS	0*	10	24	61

* KARNETAK EZ ENTREGATZEARREN PUNTUAK KENDU ZAIZKIO.

Jokoz kanpo



Francisco Javier Franco

ETENGABE

ZELA ZOAZTE TXAPELKETAN?

Aurten oso gaizki gabilta. Azkenengo postuetan gaude eta gainera taldean lesionatu asko ditugu eta hori igarri egiten da.

LESIO LARRIAK DIRA?

Belauneko eta orkatilako bihurtuak.

ZELA EGIN DITUZTE LESIO HORIEK?

Aurkakoen sarrerengatik. Talde askok mailaz igo nahi dute eta ostikada gehiegi ematen dituzte.

ARBITROEN LANAREKIN GUSTORA?

Joko zikina moztu egin beharko lukete.

ZER FALTA ZAIZUE HOBETO IBILTZEKO?

Lesionatutakoak osatzea.

GOLIK SARTU DUZU?

Aurten bi bakarrik sartu ditut. Joan zen urtean askoz gehiago sartu nituen.

ZER DELA ETA GOL LEHORTE HORI?

Ez dakit, baina aurten gutxiago jokatzeko dugu.

ZER POSTUTAN JOKATZEN DUZU?

Atzealdean.

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA?

Talde moduan jokatzeko dugula.

ETA TXARRENA?

Egiten dugun jokia.

REALA UEFA-RAKO SAILKATUKO DA?

Horrela jarraitzen badu bai, baina liga amaieran pixka bat behera egiten du.

LIGAKO JOKALARIRIK ONENA?

Kiko.

MUNDIALA ZEINEK IRABAZIKO DU?

Espainiak edo Brasilek.

EMAITZAK

INDARGORRI-POLIDEPORTIVO TABERNA	20-4
AMILOTX-ERDIBITERRAK	1-5
KAIXO-AGIREBEÑA JATETXEA	1-19
TXIPIRON-USOA	9-5
MATXAKATEGI-LA JUVE	3-6
MOSKIS-MRW	2-3
ETXAGI-AGINASPI	7-2
A ZE FLAXA ETXAGI-JAUJA OH ZEREZOS	9-1
ARLOTEAK/OILAGORRA-BILDURBAREK OPEL/LAM	1-3
BAYER-SLO	2-0
USOA-UVE BIKOITZA	3-2
PATATUS-KOMANDO PIPERRAK	1-5
ETENGABE-BAR GANBARA	11-2
ERROTAGAIN-ORTZI	2-1
PAGOMENDI-AZPEITXI JATETXEA	0-3
JAUJA OH ZEREZOS-BAR CANALEJAS	3-2

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

18:00: AMOZKIBAR-AUTOBEREZI • UVE BIKOITZA

19:00: UVE BIKOITZA-ARTUSAMAK • AUTOBEREZI

20:00: SHAKTALE-EZINLEIKE • ARTUSAMAK

Domekan barruan

09:00: IGANDEKOAK-GANBARA ARI ARI • AGINASPI

10:00: AGINASPI-PAGOMENDI • A ZE FLAXA ETXAGI

11:00: ERROTAGAIN-A ZE FLAXA ETXAGI • PAGOMENDI

16:00: MONGATXURRAK-ORTZI • ARLOTEAK/OILAGORRA

17:00: AZPEITXI JATETXEA-ARLOTEAK/OILAGORRA • ORTZI

18:00: LA PEÑA DML-UFALA • AZPEITXI JATETXEA

19:00: FAC-ERI SIRIMIRI • UFALA

20:00: ALDOKA MALDOKA-MANITOU • ERI SIRIMIRI

OHARRA

ANTOLAKETA BATZORDEAK GOGORARAZI DU, FITXAKETA

EGITEKO EPEA ZABALIK DAGOELA URTE BUKAERARA ARTE.

TXINPARTAK

Euskadiko karate txapelketan

Aitor Delarriberete eta Mikel Arakistain domekan goizeko 10:00etan Arrasaten jokatu den Euskadiko Karate txapelketan izango dira. Delarriberete Gipuzkoako txapelketan 2. sailkatu zen eta Arakistain, lan ona egin zuen arren, deskalifikatua izan zen. Bi karatekek Espainiako txapelketarako txartela lortzeko helburua dute.

Gipuzkoako klubaren arteko txapelketa

Asteburu honetan jokatuko dira Gipuzkoako klubaren arteko pilota txapelketaren finalak Idiazabalen. Zapatuan 16:30etatik aurrera Martinek, junior mailan, eskuz banaka jokatu du eta Aranzeta eta Gutierrezek binaka. Domekan 10:30etatik aurrera seniorren binakako finala jokatu dute Muruamendiarrak eta Idiachezek.

Bergara eta Antzuolaren arteko derbia Agorrosinen

Bergara eta Antzuola-ko lehen maila errejional-eko taldeek bihar arratsaldeko 15:30etan derbia jokatu dute Agorrosinen. BKEko taldea lider postuan dago eta azkenengo partiduan 2. postuan dagoen Oriokoren aurka kanpoan bina berdintzea lortu zuen. *“0 eta 2 joan ginen irabazten eta euren arbitroaren laguntza izan zuten berdinketa lortzeko. Izan ere Orioko ikusleak oso beroak dira eta arbitroaren gainean izan ziren partidu osoan zehar. Horrek eragina izan zuen eta azkenean euren alde egin zuen. Ikusleen berotasuna oso garrantzitsua da eta biharko partidurako Bergararen zaletuei Agorrosinera animatzera joateko eskatuko nieke”* adierazi digu Nietok.

BKEk Arana eta Zelaia lesionatuen eta Lizarralde zigortuaren bajak izango ditu. Halere Nietoren ustez ez dute Antzuolari irabazteko arazorik izan be-



Enrike Nietoren mutilek lidergoari eutsi nahi diote.

har: *“Tradizioagatik BKE Antzuola baino gehiago da eta uste dut ez dugula irabazteko arazorik izango, ondo ari gara jokatzeko eta. Halere euren aurrelariekin kontuz ibili behar dugu”*.

Antzuolari dagokionez, hamaikagarren postuan daude eta azkenengo partidua bana berdindu zuten etxean Antonianoren aurka. Pako Cabrera entrenatzaileak adierazi digunez: *“BKEren aurka ilu-*

sio handiarekin jokatu dugu. Badakit eurak direla faboritoak, baina gu irabaztera joango gara. BKEren pare bat partidu ikusi ditut eta baditu puntu abulak. Biharko partidua historikoa da, sekula ez baitugu jokatu partidua ofizialik Bergarako talde nagusiaren kontra. Horregatik, jokalariek guztiak sekula baino konfidantza eta gogo haundiagorekin zelairatuko dira”.

Jaime Martin Espainiako irabazle berriro ere

Jaime Martinek bigarren aldiz jarraian irabazi du Estatu-ko Kyokushinkai txapelketa. Martinek jubenil mailako lehiaketan parte hartu zuen eta katen arloan lortu zuen garaipena duela 15 egun Alicanten jokatu-ko txapelketan. Martinek adierazi digunez: *“esperientzia ona izan da. Txapelketan ez genuen borrokarik egiten, bakarrik markatu egiten genuen. Datorren urtean agian borroketan hasiko naiz”*. Martin Boluko gimnasioan entrenatzen da Albusua anaien aginduetara. Txapeldunaz gain, talde bereko Lorea Martin eta Vanesa Navas ere txapelketan izan ziren.



Xabier Azkarate

Gipuzkoako bigarren maratoilaririk onena

Xabier Azkarate antzuolarra Gipuzkoako maratoi txapelketan bigarren postuan sailkatu zen joan zen azaroan Donostian jokaturako maratoi denboraldia bukatu ondoren neguko triatloiarikin (korrika 10 kilometro, bizikletan 40 eta fondoko eskia 10) hasiko da.

- Zela planteatzen duzu denboraldia?

- Neguan triatloi txurrian edo negukoan eta krosean aritzen naiz, udaberri eta uda partean maratoietan ibiltzen naiz.

- Noiz hasiko duzue triatloi denboraldia?

- Urtarrilean hasiko gara eta apirilera arte arituko naiz. Joan zen urtean egin ez zuten arren, urtero Estatu mailako 4 lasterketetako zirkuito bat izaten da eta hor ibiltzen naiz. Osasunak laguntzen badit, guztietan parte hartzeko asmoa dut.

- Aurtengo denboraldirako ze helburu dituzu?

- Betikoak, ahal den aurren ibiltzea. Ez dakit zeintzuk arituko diren baina betikoak irtengo direla uste dut. Guk nahiko talde ona daukagu, Kea taldea eta nahiko ondo moldatzen gara. Taldea Nafarroako Arabako eta Gipuzkoako 4 lagunek osatzen dugu eta azkenengo 5 urteetan taldekako Espainiako txapelketa irabazi dugu.

- Aurten zenbat maratoi korritu dituzu?

- Urtean zehar 6 maratoi erdi korritu ditut eta gero Donostiako maratoia. 2. postua lortu arren egindako denbora ez zen oso ona izan.

- Nazioarteko maratoietan ere parte hartu duzu, ezta?

- Bai, bi urtez New Yorkeko maratoian izan naiz. Esperientzia polita izan zen; baina maratoi gogorra da bukaeran al dapa handia baitago. Duela bi urte Berlinen korritu nuen eta oso maratoi ona da. Zirkuitoa oso ondo dago eta Martin Fizen managerrak egindako

gestio batzuei esker, elitako korrikalariekin 2 egun pasatzeko aukera izan nuen. Korrikalari afrikarrekin, portugaldarrekin eta Rousseau belgiarrekin izan nintzen.

- Maratoian ze denbora egitea gustatuko litzaizuke?

- Orain 2 ordu eta 26 minutukoa da nire denborarik onena eta hortik jeistea oso zaila da. Horretarako entrenatzen kilometro gehiago egiteko eguneko bi saio egin behar dira eta 8 ordu lan eginda ez daukat denborarik.



Azkaratek neguko triatloiko zirkuitoa egiteko asmoa du.

“New York-eko maratoia oso gogorra da bukaerako aldapengatik”

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ **Bergara-Antzuola**

Lehen maila erregionala.

Zapatua. 15:30.

Agorrosin futbol zelaia.

◆ **Bergara-Ordizia**

2. mailako jubenilak.

Zapatua. 11:30.

Ipintza futbol zelaia.

◆ **Bergara-Almen**

Emakumezkoak.

Zapatua. 19:00.

Ipintza futbol zelaia.

FUTBITOA

◆ **Lagunak-Arditurri**

Eguakitza 22:15.

Labegarieta kiroldegia.

ESKUBALOIA

◆ **Bergara-Elgoibar**

Kadete neskek.

Zapatua. 16:30.

Labegarieta kiroldegia.

◆ **Bergara-Aierru Lezo**

Senior mutilak.

Domeka. 12:15.

Labegarieta kiroldegia.

PILOTA

◆ **Bengoetxea-Muguruza**

◆ **Leon-Alzola**

◆ **Arrieta-Gezalaga**

◆ **Etxabe-Eriz**

Baque txapelketa.

Martitzena. 19:00.

Udal Pilotalekua.



Argazkia: Marcial Moreno

Xake txapelketako sarituak

Xakeak beti izan ditu jarraitzaileak Bergaran: xake txapelketa garrantzitsuak askotan antolatu izan dira eta gaur egun ere antolatzen dira; orain dela bost bat urte Euskadiko Xake Txapelketa jokatu zen Bergaran...

Aste honetako argazkia 1973koa da eta Bergara mailan antolatutako xake txapelketan saritutakoak agertzen dira, guztiak kopa ederrak eskuetan dituztela, herriko eskolatan, gaur egun epaitegia dagoen tokian. Honako hauek dira ezkerretik hasita.

Atzeko lerroan: Eusebio Larrañaga, ezezaguna, Luisi Dominguez, Juan Mari Aizpuru, Juanjo Lopez, ezezaguna eta Romo irakaslea.

Aurrekoan: Peio Txintxurreta, Neli Diez, Angel Iriondo, Romo, Jose Antonio Aizpuru, Arantzazu Oregi, Juan Inazio Jauregi, Juan Jesus Fernandez eta Jesus Kalboetxeaga.

Industria
homikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Cruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

Eskatu lekua

Errege

bezperarako!


Abenduaren 24tik

urtarrilaren 2ra

itxita.

*Gabonetarako
artikuluetan*

*%25eko
deskontua*



*Zatoz zure **opariak**
enpaketatzera
Marcóra*



Bidekurutzeta 44 Tf. 76 05 54

sofa
leku

a. eme... interiores



centro
hogar
muebles

grupo



Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tel.: 79 15 03
- a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
- centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
- sofa leku**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92